

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### **Ur eta estolderia tasa, 2020ko lehenengo hiruhilekkoa, ordaindu behar dutenen errolda**

2020ko lehenengo hiruhilekoko ur eta estolderia tasaren errolda hamabost egun baliiodunez jendaurrean egongo da, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliiodunetik aurrera, interesa dutenek aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Epe hori eten egiten da 2020ko ekainaren 1era arte, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekreturen arabera.

Alegaziorik aurkezten ez bada, tasa horren errolda behin betiko errolda bihurtuko da, eta tasa horiek kobratu egingo dira.

Ordainketa helbideratuta duten pertsonen jakinarazten zaie 2020ko ekainaren 20an kobratuko zaiela.

Era berean, 2020ko lehen hiruhileko ur eta saneamendu tasaren borondatezko epea luzatu egin da, eta 2020ko ekainaren 30era arte ordaindu ahal izango da.

Tasa horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Arautegi Orokorrak, eta ehuneko bosteko erre-karguarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; erre-kargu hori bateragarria da luzapen erre-karguarekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2020ko maiatzaren 27a

*Alkatea*

*ERNESTO SAINZ LANCHARES*